

# MOTZEAN

**H**amabost eraso salaketa jaso dituzte Laudioko fisioterapeutaren kasuari lotuta, eta ehunka izan daitezkeela kalkulatu du Mugimendu Feministak. Dozenaka lagun batu ziren urte bukaeran Laudioko Herriko plazan, "Ez zara fisioa, erasotzailea zara" lelopean.

**S**ostengua adierazi diote Marieniako lurren aldeko borrokari hogeiki kolektibok. Kanboko Marienia eremuan etxebizitzak eraikitzeko proiektua badu Bouygues Immobilier agentziak. Proiektua ezeztatzeko borroka eramateko determinazioa plazaratu dute.

**U**rte bukaeran, gutxienez hiru gizonak txinatar jatorriko merkataria bat jipoitu zuten bere dendan, Arrigorriagan. Baionan ere, eraso arrazisten biktima izan ziren bi emakume: bati negar-gasa bota zioten aurpegira bi gizonak, irain arrazistak eginez; haren ahizpa lurrera bota eta kolpeak eman zizkioten.

**D**onostian 2024ko martxoan jokaturako futbol partiduaren aurretik Ertzaintzak egindako kargetan, Amaya Zabarte zaleaz gain bigarren pertsona bat zauritu zuten, ustez foam pilota batekin begian jota. Orain, kasu hori ere ikertzeko agindu du auzitegiak.

**G**ontzal Fontaneda euskaltzale eta militante gasteiztarra abenduaren 30ean hil zen. Euskara ikasteko metodo bat asmatu zuen eta euskara irakasle izan zen. Militantzia politikoan ere aritu zen frankismo garaian. Hainbat aldiz atxilotu eta kartzelatu zuten.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

## AROTEGIA EZ! AROTEGUÍA BAI!

